



UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDOIA



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK. IRAKASLEENTZAKO PROPOSAMENAK

Fitxa teknikoa / zuzendarikidea / sorkuntza-
zuzendaria / gidoilaria / musikaria

Sinopsia

Ploey hegazti bat da, txirri bat.
Ezagut ditzagun txirriak.

Unitate didaktiko hau lantzeko aholku
metodologikoak.

Filmaren karteletik abiatuz, elkarriketarako gida.

Oinarrizko 3 pausu marrazki bat 3D animazio
batean bilakatzeko.

Haur eta gazteen eskubideak:
txikitatik argi utz dezagun.

Galera eta duelua lantzeko baliabide didaktikoak.
Bidegin-ek egindako materiala.



HITZ EGIN DEZAGUN PELIKULA IKUSI OSTEAN. IKASGELARAKO PROPOSAMENAK

Filma hitz bakarrean

Pertsonaiak: Nolakoak dira?
Zer balio erakusten dituzte?

Gidoiari buruz, gaika hitz egiteko galderak:

- Familia
- Galera
- Talde-lana
- Adiskidetasuna
- Beldurra
- Errua
- Ploeyek zerbait garrantzitsua ulertu du
- Paradisu harana
- Ploeyren erabakiak
- Ametsak

Jolasa. Hegan egin altu: itzal zuria



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK.
IRAKASLEENTZAKO
PROPOSAMENAK**

FITXA TEKNIKOA

Izenburua: PLOEY, BAKARRIK HEGAN INOIZ EZ
Herrialdea: Islandia eta Belgika

Árni Ólafur Ásgeirsson - Zuzendaria

Reykjavik hirian jaio zen, eta Poloniako Zinemako Nazioarteko Eskolako Zuzendaritzako Sailean graduatu zen, 2001ean. Ordutik, zineman nahiz publizitatean aritu da bai Islandian eta bai nazioartean. *Ploey*, *bakarrik hegan inoiz ez* da bere hirugarren film luzea.



Gunnar Karlsson - Zuzendari bisuala

Islandian jaio zen 1959an; arte ederrak ikasi zituen Stockholm-eko Arte Errege Akademian. Animaziozko film labur zein luzeak egin ditu, zuzendari, zuzendarikide eta zuzendari bisual gisa.

Ploey (2018), *Thor - Valhallaren kondaira* (2011), *Anna eta Moods* (2006) eta *The Lost Little Caterpillar* (2002).

Arte horretan lan egiteaz gain, liburuak ilustratu eta idazten ditu, eta Reykjavikeko egunkari batean, astekari gisa, politikako marrazki bizidunen zutabe bat dauka.



Ives Agemans - Zuzendarikide

Laurogeiko hamarkadan ilustrazioa eta grafikoa ikasi ostean, 3D diseinuarekiko nahiz berak egindako filmak zuzentzeko interesa azaldu zuen. Horregatik sortu zuen Cyborn 3D ekoiztetxea.

Publizitatea, bideoklipak eta film laburrak zuzentzen esperientzia pilatu ostean, bere benetako pasioari heldu zion, ekoizpen zinematografikoari.



Fridrik Erlingsson - Istorioa eta gidoia

Musikari, diseinatzaile eta idazlea da. Gidoilari hainbat filmetan.

Atli Örvarsson - Musika originala

Akureyri hirian jaio zen. Gazte zela, dagoeneko nabarmendu zen tokiko musikan.

Platinozko hiru eta urrezko bi disko eskuratu zituen "Sálin hans Jóns mín" talde islandiarraren kide gisa, Berklee College of Music-en eta Ipar Karolinako Arte Eskolan konposizioa ikasi baino lehen. Konposizioan nabarmendu zen, eta Pete Carpenter beka eskuratu zuen; horrekin Los Angelesera joan eta Mike Post telebistako beterano batekin lanean hasi zen *NYPD Blue* eta *Ley y Orden* telesailaren hiru ataletan. Han ezagutu zuen Hans Zimmer konposatzailea eta hark eskaini zion berarekin *Remote Control Productions* taldean sartzea. Musikari honen aitortzen artean ditugu hainbat *ASCAP & BMI Film & TV Music Awards*, eta izendapena jaso zuen *World Soundtrack* sari prestigiotsurako.

"Urteko aurkikuntza" saria jaso zuen akademian *Babylon A.D.* filmarengatik.



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK.
IRAKASLEENTZAKO
PROPOSAMENAK**

SINOPSISIA

Urtero, hegazti migratzaile ugari bueltatzen da jatorrizko herrira milaka milia itsasoaren gainetik egin ostean, horien arten dugu Ploeyren aita buru duen txirri-taldea. Hegaldi arriskutsuan zehar, liderra saiatu zen denak babesten, baina, zoritxarrez, batzuk belatzak harrapatu zituen, Ilun beti baitzegoen gose. Urteak zeramatzan lurrean beldurra eta ikara zabaltzen.

Urte horretan jaio zen Ploey. Aitaren esperientziarekin, Ploeyek janaria bilakatzen ikasi zuen. Irtenaldietako batean, Ploverina ezagutu zuen, eta banaezin bilakatu ziren. Elkarri desafio egiten zioten gauza berriak arakatzeko eta probatzeko.

Biek nahi zuten txirri azkarrena eta taldearen hurrengo liderra izan. Gau batean, Skua liderrarengana joan zen; behin apeua izan zen Itzalen plan makurretarako, eta haren asmoak kontatu zizkion. Skua bera, damututa, Paradisu haraneko koldarrekin elkartu zen; han bizi baitira neguan zehar itsasoaz haratago bidaia egin ezin dutenak.

Txirri-kumeak hegaldi-eskolara joan ziren entrenamenduaren azken fasean.

Kumeak, banan-banan, hegan egiten ari ziren bitartean, Ilunek Ploey hartu zuen. Aitak eraso egin zion Iluni Ploeyek alde egin zezan, baina aita hil egin

zen, eta luma bat baino ez zuen utzi. Ploey traumatizatu egin zen, eta hegan egiteko gaitasunarekiko fedea galdu zuen. Ez zen udara osoan habiatik atera. Bidaiari ekiteko eguna iritsi zen, eta, azken aldiz, Ploeyek indarra hartzen saiatu zen hegaldiari ekiteko, baina kale egin eta hango katuak harrapatu eta etxera eraman zuen. Ploeyk lortu zuen katuaren atzaparretatik alde egitea, baina beranduegi zen. Ama eta Ploverina beste hegazti batzuekin joanak ziren, pentsatzen baitzuten Ploey hilik zegoela.

Bizirauteko, Ploey Paradisu haranerako bidaia egin behar izan zuen.

Egun batean, Ilunen atzaparretatik ihes egin ostean, Giron-ekin elkartu zen; esperientzia handiko bakartia zen; Ilun mendekatu nahi zuen familiakoak hil baitzizkion. Bien artean gertatzea zaila den adiskidetasun bat eraiki zuten errespetua eta elkarrenganako miresmena oinarri zituena.

Hegan egiteko gai ez izan arren, Ploey Paradisu haranera iritsi zen. Udara hurbiltzen ari zela, Ploverinaz pentsatzen hasi zen. Hura txirrien buru zen ozeanoan barrena egiten ari ziren itzulera-bidaian. Ilun zain zuten.

Modu bakarra zegoen familia eta lagunak belatzaren atzaparretatik salbatzeko, hegan egiten ikastea eta aitak irakatsitakoa egitea.





**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK.
IRAKASLEENTZAKO
PROPOSAMENAK**



**PLOEY HEGAZTI
BAT DA,
TXIRRI BAT.
EZAGUT DITZAGUN
TXIRRIAK**

KLIK



**UNITATE DIDAKTIKOA
LANTZEKO PROPOSAMENAK.
AHOLKU METODOLOGIKOAK**

Elkarrizketa du oinarri proposamen metodologiko honek, eta, azken batean, etika bizirako prestakuntza bat da. Elkarrizketaekin martxan jartzen dira garapen intelektualerako eta pertsonetikiko errespeturako beharrezko prozedura eta jarrerak; horrek bizikidetzan on baterako trebakuntza eskaintzen du.

KLIK



**INFORMAZIO
GEHIAGO.
TESTUA ETA
GALDERAK.**

**FILMAREN KARTELA ABIAPUNTU,
ELKARRIZKETARAKO GIDA**

“Ploey, you never fly alone”

Zer herrialdetakoa da filmaren zuzendaria? Zein hizkuntza hitz egiten da Islandian? Erraza al da zuzendariaren izena ahoskatzea?

a. Zer esan nahi digu izenburuak?

b. Zer kontatzen digu filmaren kartelak? Zer informazio ematen digu (begiradak, koloreak, formak, pertsonaien tamainak)?





**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK.
IRAKASLEENTZAKO
PROPOSAMENAK**

**OINARRIZKO 3 PAUSU MARRAZKI BAT 3D
ANIMAZIO BATEAN BILAKATZEKO**
Jon Gaztambideren eskutik


STORY BOARD

Istoriaa idatzi ostean egiten da story boarda. Komiki moduko bat da; filmeko planoak marrazki sinple batzuekin marrazten dira, filma nolakoa izango den ikusteko. Marrazki bakoitza plano bat da, eta komiki bateko biñeta bat balitz bezala marrazten da. Biñeta horietan ez da idazten pertsonaiek esaten dutena, eta ez dira margotzen. Story boarda amaitzean, aktoreek pertsonaiak bikoizten dituzte. Ezinezkoa da aktoreek amaitutako filmarekin bikoiztea, animatzaileek jakin behar baitute aktoreek zer esaten duten, ahoko keinuak egin ahal izateko eta horiek ahotsarekin bat etortzeko.

LAYOUT

Filmaren eskema bat egiten da, eta hor ikus daitezke: pertsonaiak, eszenarioak... (behar bada, amaitu gabe). Eskema hori animazio sinpleekin egiten da; horietan pertsonaiak mugimendu sinpleak egiten ikus daitezke. Erdipurdiko animazioak dira, eta ikus daiteke pertsonaiak norantz mugitzen diren, zer keinu duten, zer mugimendu egingo dituzten etab. Layouta zer den azaltzeko adibide erraz bat honako hau da: pertsona bat toki batera doa, ezkerretara begiratzen du, eta harritu egiten da. Layoutean eskema hau litzateke: pertsonaia mugitu norabide batean, oinezko mugimendurik eta aurpegiko keinurik ikusi gabe -ez litzateke beharrezkoa izango nola ibiltzen den ikustea ezta aurpegiko espresioa ere-; ondoren burua biratzen ikusiko dugu, eta harridura aurpegia jarriko du.


STORY BOARD



LAYOUT



**BEHIN
BETIKO
PLANOAK**



BEHIN BETIKO PLANOAK

Plano honetan pertsonaiak ikusten dira, eszenarioak, argiak, animazioak... dena amaituta. Bitxikeria bat: animazio-lana amaitzen denean "render" deiturikoa egiten da, alegia, animazioa bideo bilakatu: horixe da animazio-programek eskaintzen duten aukeretako bat. Denbora asko beharko da hori egiteko filmaren kalitatearen eta ordenagailuaren potentziaren arabera. Hori egitea funtsezkoa da ordenagailu-programa profesionalik ez duen pertsona batek zuen animazioa ikus dezan, filma ikus dadin.



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK. IRAKASLEENTZAKO PROPOSAMENAK

HEZKUNTZA ALDIEN ARABERAKO DUELUAREN ERANTZUNAK

Heriotza desberdin bizi dugu bizitzako fasearen arabera; desberdintasun horiek pertsonaren garapen kognitibo zein emozionalak baldintzatzen ditu.

***Bidegin.** Profesional eta boluntario talde bat gara, eta babes psikoemotionala eskaintzen diegu heriotzagatik gertuko pertsona baten galerari aurre egiten ari direnei edo gaixotasun batengatik norbait galtzeko zorian dauden pertsonen eta familiei. Beren eraldaketa-lan pertsonalarekin konprometitu nahi duten pertsonekin egiten dugu lan, antzeko egoera bizi duten pertsonekin beren bizipena konpartituz. Irabazi asmorik gabeko elkarte da.*

KLIK

TESTU OSOA
ESTEKA
HONETAN



HAURRAREN ESKUBIDEAK: txikitatik argi utz dezagun

“Haurren eta gazteen eskubideak” testuaren sarrera labur bat eskaintzen dizuegu; Unicefek idatzi zuen Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarteen fororako.

Garrantzitsua iruditzen zaigu txiki txikitatik GIZA ESKUBIDE kontzeptua transmititzea eta jakinaraztea zenbat lan egin den eta egiten ari diren estatuek horiek aitortu dituzten. Egin gaitezen Giza Eskubideen babesle!

Giza Eskubideen kontzeptuak oinarrian du pertsonok “eskubide naturalak” ditugula, eta ez direla Estatuaren aitortza formal baten arabera.

Giza eskubideen ezaugarriak:


- Unibertsalak dira, hau da, pertsona guztien eskubideak dira kontuan izan gabe kultura, garai historikoa edo beste edozein desberdintasun.
- Absolutuak dira, hortaz, gatazka-kasuetan, asebate behar dira beste edozein eskubide baino lehen.
- Ukaezinak dira, beraz, edozein eztabaidaren gainetik daude, horiek bermatzen baitute berdintasun-plano batean hitz egin daitekeela.
- Besterenezinak dira, alegia, ezin zaizkio pertsonari kendu, nahiz eta pertsona horrek urratu espresuki.
- Utziezinak dira, inork ezin du ez dituenik esan. Denboraren joan-etorrian, giza eskubideen kontzeptua zabaltzen joan da, eskubide zibil eta politikoetatik eskubide sozial, ekonomiko eta kulturaletara.

KLIK

TESTU OSOA
GAZTELANIAZ
HEMEN



Unicefek Giza Eskubide eta
Bake Hezkuntzaren Elkarteen
Fororako egindako testua.





**HITZ EGIN DEZAGUN
PELIKULA IKUSI
OSTEAN.
IKASGELARAKO
PROPOSAMENAK**

GIDOIARI BURUZ HITZ EGITEKO GALDERAK:

- Zein da filmaren gai ardatza edo nagusia?
Zer mezu igorri nahi digu?
- Zein eszena gustatu zaigu gehien? Eta gutxien?

Familia

- Zein da Ploeyren familia? Eta hegazti-multzoa, zein da?
- Zer osagai eduki behar ditu norbaitek familiakotzat jo dezagun?
- Giron Ploeyren familia da?
- Zer motatako familiak daude zure ikasgelan?



Galera

- Zer sentitzen du Ploeyek aita hil ostean? (mina, tristura, errua, ez du jolastu nahi, tripako mina, pentsatzen du hegan egiteak arriskuan jartzen dituela).
- Zer esanahi ematen dio Ploeyek aitaren lumari? Zerbaitetan laguntzen dio? Zertan?
- Giron Ploeyri esaten dihonean "ikasgairik garrantzitsuena ikasi duzu. BAKARRIK zaude". Zer esan nahi du?
- Zer irudikatzen du Ploeyren aitaren lumak?



Talde-lana


- Hegazti-multzoaren bidaia taldeko lana da? Zergatik?



Adiskidetasuna

- Zure ustez, zer osagai eduki beharko lituzke adiskidetasun-harreman batek?
- Zer ekartzen dio adiskidetasunak gure bizitzari?
- Zer hitzekin erlazonatuko zenuke (adibidez: maitasuna, zaintza, zeloak, ondo pasatzea, bestea gurea dela pentsatzea, oparia, laguntza etab.)
- Zergatik egiten da Giron Ploeyren lagun filmaren hasieran? 00:22:52
- Lagunak izatera iristen dira? Zerk elkartzen ditu?
- Zein dira Ploeyren lagunak?
- Erraza al da lagunak egitea?





**HITZ EGIN DEZAGUN
PELIKULA IKUSI
OSTEAN.
IKASGELARAKO
PROPOSAMENAK**



Beldurra

- Zeri dio beldurra Ploeyk?
 - a. Hegan egiteari
 - b. Plovita Slowyrekina egoteari...
- Zerk eragiten dio beldurra?

Errua

- Errudun sentitzen da Ploey aitaren heriotzarengatik?
- Errudun sentitzen da Giron bere kumetxoen heriotzagatik?


Ploeyek zerbait garrantzitsua ulertu du

Giron eta Ploeyen arteko elkarrizketa:

- Giron: "Neu izan behar nuen apeua llunentzat familia salbatzeko" 00:40:51.
"Orain han goian daude. Haiei esker ez nago inoiz bakarrik"
- Ploey: "Nire aita ere han goian dago"
- Giron: "Noski baietz eta zaindu egiten zaitu!"

Gironek kantatzen duen kanta

- "Faltan botako duzun arren, beti zure ondoan egongo da"*
- Zer ulertzen du Ploeyk Gironekin duen elkarrizketan?



Paradisu harana

- Nor bizi da han?
- Nola bizi dira? Zer egiten dute? Ploey salbatzen dute?

Ploeyren erabakiak

- Noiz hasten da hegan egiten? Instintuaz gain, zerk bultzatzen du hegan egitera?
- Paradisu haranean bizitzen geratzea pentsatzen al du?
- "Ikusiko zaitut berriro, Ploveria" esan zuen Ploeyek. 00:22:52
- Familia salbatzera joan, jakinda lluni aurre egin beharko ziola, edo Paradisu haranean geratu.

Ametsak:

- Zein zen Ploveriaren ametsa?
- Zein zen Ploeyren ametsa?
- Lortzen dute?

JOLASA:
Hegan egin altu:
itzal zuria

KLIK

JOLASA
DESKAR-
GATZEKO

